



Ekainaren 7an, Lea-Artibaiko Kooperatiben Mahai Elkarteko bilera izan genuen, Eika S.Coop enpresan. Elkartea, Burdinola, Cikautxo, Danobat-Lealde, Eika, Fagor, Kide, Laboral Kutxa eta Maier Kooperatibek osatzen dute, Azarok dinamizatzen duelarik. Kooperatiba Mahaia urtean hiru aldiz batzen da eta beste gai batzuen artean Lea-Artibai eskualdean eta inguruko eskualdeetan (Deba-Behea, Durangaldea eta Busturialdean) sortu diren enpresa proiektu kooperatibo berriak ezagutu eta proiektu hauek diruz laguntzeko erabakia hartzen da (Jaurlaritzarekin, Azaro Fundazioak duen hitzarmen baten baitan). Ekaineko bilera honetan 3 enpresa proiektu kooperatibok egin die Mahaiko kideei bere enpresaren aurkezpena: Bermeon kokatu den Fisioterapia zentro bat; Mundakan kokaturik dagoen Urdaibai eta Lea-Artibai eskualdeko natura eta kulturako baliabideak ikertu, sustatu eta ustiatzen dituen kooperatiba bat; eta Gernikan kokatuko den estetika zentro bat.

Aurten, hiru proiektuak diruz laguntzeko erabakia hartu du Kooperatiba mahaia, guztira, 8.000€ko laguntza emango dielarik proiektu kooperatibo berri hauei.